

FOLIO-RE-9-1 (21)



YESU - KRISTO'REN

NEKALDIA




Euskal Biblioteka Labayru



1025650


Erlijinoa-21(530.libx.)
Liburuxkak

YESU-KRISTO'REN NEKALDIA



BEROGEI ANTZERKITAN

JESUS ZONZALEZ'EK EGIÑA
ETA MANTEROLAK GABRIEL
EUSKERATUA 1964'ko Yofa-
lan.....



I IRUDIA.- YERUSALEM'ERANTZA

Yerusalem'erantza doa Yesus, eta irugafenez, bere Nekaldi ta Erotza iragafitsen. "Ora! Yerusalem'era igoten goaz, ta Gizademea abade nagusi ta idazlarien menpean yafia izango da, eta eriotzara epaituko dabe, ta atzeñitafei emona izango da, ixekatu, astindu ta gurutzean yosidagien." Ta Yesus iranduz doa ikasleen aüfetik, eta ikasleak añituta dagoz, bildufez baterik..... ikusten ebena aitu ezinda. Ondo dakie yudeguek Yesus gofo-tau eta bizia kendu gura dautsoela, eta ezin dabe uleftu zer dala-ta Yesus'ek aüfea artu ta iraduz doan arerioen eskuetara..... Añituta, bildufez ezin yafaitu dautsoe.....

II IRUDIA.- YERIKO'KO ITSUAK

Yesus, Yerusalem'erantza yoyala Yeriko'ra uferartu zan. Uriko ateetan, bideertzean itsu bi aurkintzen dira, igariten ziranei zerbait eskatzen. Gizostearen zufumufua entzuten dabe, zerbait oi ez zana, gertatzen zala oartzen dabe, Eskar edo Grazia uferatzen zala susmatzen

dabe leyzaz, estu itanduten dabe, eta hor-
baitek Nazareth'eko Yesus igaroten za-
la esan eutsenean, dedarka asi ziran a-
latz, mirari bat eskatzen: "Yesus!, Dabid'
én Seme ori, gutzaz efukitu zaitte!. Obe-
to ekian zer gura eben, baña alan da be,
itandu egiten dautsie euren siñistea -
obeto alertu zeikien." Zoaze, diñose, zeu-
on siñistek osatu zaitue". Eskafonez -
beterik yafaitzen dautsoe, bere iraka-
tsiei yafaituko eutsienok, efitafen go-
ralben artean, Abar-Igandeko Hosana ta-
goralbenai aúfea artuaz.....

III IRUDIA. -MARIAKK YAUNA EGORTZITEN -
DAU. Betania'n, Simon Legendunaren etxe-
an Maria'k Yesus igorziten dau. Esangu-
ra andiko igortzea auxe, bere obiratze-
ko igortzea iragarten dauts, Saltzleak-
mormoxetan diartu, onatzez bere bafuko
ustelkeria agertuaz. Tolesgabe ziran i-
kasle batzuk, ez eben oartu be, biotz on-
bat zelan samintzen eban. Orduen gertau
zana oin be ainbeste bider gertatzen -
da, guzufecko salakuntzak guzufa- zal -
edefedez apainduaz. Yesus'ek ori ger-

tatzen da, guzuzeko salakuntzak guzur-
azal ederez apainduaz. Jesus'ek ori ger-
tatzen itxiten dau, biotz onekoen iraba-
ziak ugariaoak izan daitezcan, eta Matia'
ren egite ona aldeztan dau, une bateko
mormoxetea ordeztan betiko gotalbena eski-
ñiaz. O'fek, diño Jesus'ek, nire gorpuaren
igortzketa o'biratu baño lenago egin dau,
Eta Goizparki, Ebanjelioa azalduko dan-
toki guztietan, emakume o'fek egin dabena.

IV IRUDIA. YERUSALEM'EN ANDIKIRO SARTZEN

DA.-Iragafita egoana itz-itze bete da.-
Osasuna ta birariak erein ebezan Jesus,
yudeguen a'fean, andikiro Mesias lez a-
gertzen da. "Sion'go alabari esan egio-
zue. O'fa or datorkizu zure efege, otza-
nik asto ganean ta uztarpekoaren ume-
garian yesa'fita". Ikasleak, oldozture-
ko asti barik, a'futura dagoz ikusten -
dabenagaz: Gizosteak bidera urtenda, -
goraka txilotuten dabe, euren Gaizka-
tzale ta Mesias lez artuaz. Bitarte-
an an dira parixeta'fak bekaiztzez eta
amofuz. Gizosteak auren so'nekoak lu'fean
zabaldu, eta garailari antzez olio -

tez eriñoz adafak gora yazoaz, gafazi -
ta deadar dagie "gora Dabid'en Semea!-
Onetsia Yaunaren izenean datofena! Gora
goi-goyetaraño!".....

V IRUDIA.-ZERGA AUZIA

Yaungoikoaren asmoak bai dirala es-
kutuak!. Itsutasuna lagatzen dau, bere-
yaungoikozko Semearen aintzarako, bere-
maitasun osoa eskiñiaz. Jesus'en arerio-
ak euren argaltasuna ez dabe ulertzen
ta Yaunaren gurariak izentautako ordua
eltzen danean bakafi euren asper-gogoa
asetuko dabela. Jesus indafez atrapatze-
ko alegiñak ut-segin autsien, eta mal-
tzukerira yoten dabe. Guzurtenkeri, mal-
tzukeri ta labankeriz ezezago yarixi-
ko dabela uste izanik, ba'diñotsoe: "Ira-
kasle, ba'dakigu zintsoa zareana ta e-
san eiguzu: Kaiser'eri zerga ordaintzea
zilegi eteda?.... Bayetz esaten ba'dau,
Mesias ez dala esango dabe, eta ezetz
esan ezkerro zigorgafi dala. Jesus'ek-
euren maltzurkeria ñzagaturik, Bere
erantzunagaz, lotsatuta itxi ebezan.



SEIGAREN IRUDIA

Gofoto ta ondamaia biotzaren yaube - egiten diranean, gizonen burugogorkeria ikaragafia da. Jesus'ek egin ebazan mirari afigari, bere yakituri neufibakoa- eta bizitzako deuntasuna, parixetafen - amofua ibituteko naiko ez zanizan. Parixetar, idazlari ta epaikariak Kaipas'en yauregian batu ziran, Jesus'eri exilean eskua ezari eta erailteko". Ain beste - mesede artu ebazan Jesus'egandik eta - efaia Bere aldez yaikiko zala bildur ziran, eta gaizkiñen antzera, ixilean yokatu gura eben: "Yai egunetan ori egitea ez da egoki, bear ba'da, efaia yaiki egingo litzake-ta".

VII IRUDIA. - Yudas saltzalea.

Ain koldar eta bildurti ziran yudeguen abadeak, Yudas saltzalearen asmo - lotsagafia abegi ona egin eutsen. Sata-nas Yudas'en biotzaz yaubeta zan. Afoke-riz beterik siñistea galduta, bere gri-ñak biotza legortu eutsoen, era berean-biozketa on eta zintsotasuna, diruzaleta sunak ito eutsozan. Yudas'ek biotzeko a-

ak Satanask'eri idigi eutsozan, saltza-
lekeririk baltzeleanan yausteko."Zer e-
mon gura daustazue, eta neuk zeuen esku-
etan ipiñiko dot?.Ufe zurizko diru bat-
zuk erakutsi eutsoezan eta bere biotz -
zikotza, une atatik gertau zan, lenengoko
eran Yesus arerioen eskuetan epinteko.

VIII IRUDIA. -OÑAK GARBITZEA

Labur ta garbian dira Ebanjelio done-
ko itzak, baña ondo agertzen dabe Apal-
tokian gertatuko ziran eskutuki afigafi-
en aunditasuna. Yesus'ek ba'ekian luf o-
netatik bere Aitagana yoateko ordua za-
la, eta luf onetan bizi ziran beretafak-
maitasunez azkereraño maite izan ebezan,
eta esan eutsen:Nire Nekaldi aufetik go-
go bizi az gura izan dot Pasko au zuekaz
ospatutea".Eta ordurako txefenak, diabru-
ak, Yudas Iskariote'n biotzean sartuta -
eukan Yesus areriosi emoteko asmoa.-
Eta Yesus'ek, Aitak bere eskuetan gauza-
guztiak ipiñi ebazala, eta Yaungoikoa--
gandik urten eta Yaungoikoagana biurt-
sen zala yakin afen, yopu-serbitzarien -
serbitzari egin zan, eta apaltasun eta-

eta apaltasun eta maitasunik afigafie-
nagaz, bere ikasleai oñak garbitu eut-
sesan.

IX IRUDIA.- E U K A R I S T I A

Urte bete lenago agindu ebana bete-
tara doa Yauna:Ikasleak ikusten dabe -
euren irakasle Yaungoikozkoa ta gizo-
nen Gaizkatzalea munduko pekatua gai-
tik bere odola ixurtzeko gertu dagola,
eta bere neufibako maitasunaz afituta-
dagoz, gurutzeko opariaen afeztik, beti-
ko bariztauko daben odolbako oparia i-
pintera bultzatuten dabelako. Auxe da -
egizko Bildotsa, bere odolagaz gizadia-
betiko eriotzatik aldenduko dabena, eta
bizitza onetako basamortuko ibilandian
gure gogoia sendotuko daben yanari yaun-
goikozkoa izango dana.....

X IRUDIA.- APALTOKIKO AGURA

Bata besteagandik aldentzeko ordua-
eldu da. Auxe bai une gogofa!. Ain esku-
tuki gurenaren aunditasunaz sortu era-
giten dautsezan biozketak bai dirala -
ulertu eziñak!. Bafiro be, Kristo'ren --
Biotzaren samurtasunetik, maitasunik sa-

mur-samufena agertzen daben, itz gozo-
eztitsu ta pozgafienak itufi gozo bate-
tik lez urtetan dabe: "Ene semetxuok!,
diñotse Legeko agindu guztiak baten sar-
tuaz:"Alkar maite izan zaiteze, nik -
maite izan zaituedan lez".....Zuen-
biotza ez daitela izutu.....bakea itxi-
ten dautzuet.....

XI IRUDIA.- GETSEMANI'RA BIDEAN

Yesus, bere ikasleakaz Getsemani'ra-
yoyala, bere biotzean somau ebezan sa-
mintasunaren aunditasuna nok azaldu?.-
Itunduten asi zan, bildura somatzen e-
ban, gogoia lafitasunez bete yakon....."
Nire gogoak eriotzako lafitasunak soma-
tzen dauz"diñosku Goizparkiak. Yaunak-
somatzen dabena ez da koldartasuna, be-
re gurario somatzen daben ituntasuna --
baño. Ofegaz ain biotzketak gozoak sortu
eragiten daurkuzan egi afigafi au ager-
tzen dausku:geuk lez egizko giza-iza--
tea ebala, eta gure pekatuen zofak orda-
intzeko, azaldu ezin daikezan oñazeak-
egiz igaro, yasan, ebazala. Berak gura -
dabelako oputzen da, bere gurari osoz -

nekeak igaroten dauz, eta Yaungoikoagana yasoteko, bere guganako maitasuna obeto agertuaz, samintasunezko kaliza — gafatzarek ondafetaraño edaten dau....

XII IRUDIA.— I L T A M U A

Yesus, bere gain artzen dauz gizadiaren pekatu guztiak, bereak ba' ilra lez, Adan'en lenengo obenetik asita gizaldien azkenerarte egingo dan azkeneraño.. Eta Bera, garbitasun berbera zan! Deuntasun berbera!, Yaungoikoaren Seme ta Poza, eta Bere gain ikusten dau gaiztakeri guztien zikinkeria, eta Zeruko Aitak bertan bera etxiten ebala...! Ene Aita! al ba'da!.....diño dedarka, ezereztuta, apalduta, zapalduta ain beste obenen azpian.....Eta bere naimen eta sentzumenaren arteko bufuka onetan, Bere gizatasun donea iltamuko lafitasunpean aufkitzen da-ta, odolezko ixerdi ugaria soñekoa guzti ta luferaño eltzen da.....

XIII IRUDIA.—YUDAS'EN MOSUA

Saminlafitasunaren indafez odolez-buztita, Yesus'ek urduri ta luŕ-yota lez dagoala, izkiluz beterik bera atra-

petera datozen arerioen itzak entzuten dauz, eta ondiño be logale egozan ikasleak ixartuten dauz. Aferio talde arte-
tik lotsa barik saltzaleak urten, eta maitasun ezaugafi dan mosua, saltzale-
keri biurtuaz, Irakasleari diñotso: "Aguf Irakasle", mosu bat arpegian emonaz. Au-
xe bai izan zala edenez kursututako —
mosua!.....

XIV IRUDIA. — YESUS ESPETXERATUA

Jesus'ek auzetik daki gertatuko ya-
kon guztia, ta, gizostearen aufera yoan-
zan eta afituta itxi ebazan. Bere al i-
zatea agertu ondoren eta mirari bidez-
mofoi asartuaren belafia osatu, Yerusa-
lem'go Yauretxeko abade epaikari ta ta
zafakana zuzenduaz esan eutsen: "Lapur-
bila lez ezpata-makilaz etofi zarie ni
afapatzera. Egunero yafiten nintzan yau-
retxean irakasten ta ez zeustien esku-
fik ezari. Baña guzti au, igarleak ida-
tzi ebana bete dedin gertatu da, eta au
da zuen ordua ta ilunpearen aginza-aldia.

XV IRUDIA. — ANAS'EN AUREAN

Gure Gaizkatzalea lotuten dabe ta

saldukeri ta sumiñez beterik, Kedron — bidetik Anas'egana eroaten dabe. Anas'ek azerikeriz itandu eutson Yesus'eri, bere irakatsi ta ikasleetzaz, Eta Yesus'ek erantzun eutson: "Nik beti argi ta garbi itz-egin dot, txaide, zelai eta — yauretxean. Zer dala-ta ba, itanduten — daustazu?.. Mofoi lotsabako ta zuritza — le batek betondoko bat emoten dautso, — eta egokiro erantzun be, zer erantzun — ez ekiala itxiaz.

XVI IRUDIA.—KAIPAS'EN AUREAN

Jesus salatuteko biderik okefenak — asmatzen dabez, Kaipas'ek a'fopuztuta, — andikiro itanduten dautso: "Yaungoiko — biziaren ixenean eskatzen dautzut esan dagiskuzula zu Yaungoikoaren Semea za — reanetz!. Kaipas itaun au egiten dau gi — zadi guztiarentzat itaunik ga'fantzitsu — ena dala oartu barik. Erantzun onetatik dingilizka dago gizonaren betiko — zorion ala zoritxara... Yesus'ek itaun sentzunbakoeri ez dautse erantzun, ba — ña oin bai argiroz erantzuten dau — Bera Mesias, Yaungoikoaren Semea dala,

eta Gaizkatzalea dala. Erantzun one-
ri eutsiteko gertu da Bere odola ixur-
tzeko be.....

XVII IRUDIA.-KEPA'REN UKATZEAK

A bai zala samingafi Yesus Biotza-
rentzat, Bere Eleizaren oñafitzat auke-
ratuta eukan ikaslea golgarkeriz ez e-
bala ezagutzen esaten ikustea. Emakume-
serbitzari batek adirerik geyen agertu
ebana luferatzen dau!. Yaungoikoaren as-
mu estuak!..... Bere buruagan uste lafe-
gi ipiñi ebanak, Getsemani'n otoiza i-
txi ta lo egin ebenak, bere indafak —
neurtu barik oben-bidean sartu zan....
onetan Yaunak argiro agertzen dausku,
zur ibili bear gareala ziltzaldian ez
yausteko!.....

XVIII IRUDIA.-KEPA'REN NEGARAĀK

Kepa'k oñafaren kukufukua entzunaz,
Bere Irakaslearen esanaz gomutau zan:
"Oñafak bifitan kukufuku egin baño len
iru bider ukatuko nozu", eta bere biot-
zean pekatuaren astuntasuna somatzen—
dau, une atan afastaka eroyen Yesuséeri
arerio artean ikusten dau eta zuzen-

du eutson begirakuna oartu ebanean, bere pekatuagaitik negaf bateh atarira urten eban. Yaungoikoaren eskaf ongi-leak eta bere Gaizkatzalearen begirakun samufak, bere gogoa astindu eban, eta maitasun eta damutasunez negafarimon eutson....

XIX IRUDIA.- YESUS LAIDOTUA

Gau beranduan Yesus eriotza duin zala epaituten dabe, eta goiserarte mofoi zaintzaleak tirabiraka erabilten dabe. Txua arpegira bota, ukabilkada emon, begiak estaldu ta betondokoak emon esanaz: "Kristo, esan egiguzu nok yozaituan".....Begira gotzanak guftuten dabena, gizon gaiztoen ifigafi!....Izakerera samu eta oso-osokoa sanez, Yesusek gorputz oñaze biziak somatzen ditu, eta bere biotzaren ontasuna aundiazan neufiz, obeto esagutzen eban, bere gogoak, ezetsiak noraño berantzen daben

XX IRUDIA.- SANEDRIN'EN AUREAN BARIRO

Gofoto ta asperkunde egafiak kiñatuta, goiz-lenean bafiko Sanedrin'a batuzan. Zuzen agertu gura dabe, egunez epa-

ya emonaz, gabaz emondako eriotzako epaya, legezkoa ez zan eta. Orixe dala-ta, bafien-bafi itanduten dautsoe: "Kristoba'zara, esan egiguzu....." Beraz,.... zu Yaungiokoaren Semea zara?"... Yesus'ek bayetz erantzun eutsenean, gauza ikaragafi bat entzun bai eben soñekoak azal-guzufkeriz ufatu eta epaya emon eben: - Eriotz gafi da".....

Bizitza egin ebana, eriotzara epaituten dabe, Yainko-maitasuna arerioresn - gofotopean yausten da, Irakasleak erakusten dausku bidean. Naigabepean zagozi enok, zatoze neugana, diñosku, begiranire odol arbanbakoa, yaungoikozkoa izanda zuen maitasunez ixuriten dana... Zatoze bai, mundutafen sentzunbakokeriz, zapalduak zarienok, griñaren bufukan - menpetuak zarienok, biotza zatituta - daukuzuenok gizonen norberekeriz. Zatoze bai, zeuen gogoan lafitasun eta estutasuna somatzen dozuenok, maitasun eta onaitasun zale zarielako, onexek dira - Yaungoikoak aberastasun lez emon cutzuezan ondasunak eta. Zatoze neugana.

B I G A R E N A T A L A

XXI IRUDIA.- YESUS PILATUS'EN AUREAN

Zigoftu eta Sanedrin edo batzafak eriotzarako epaitu ondoren, gure Gaizkatzalea lotuta Kaipas'en etxerik Pitus'en yauregita bere eskuetan ipinteko eroan eben. Sanedrin'ak gura ebana zan efomatar agintariak euren epaya ontzat emotea. Efomatar yaurlariak, parixetaren gofoto ta axperkunde gogoia ikusten eban, ez ain garbi euren salakintzen sustafa, Kristo'ren erantzunen eskutua oartzan eban, eta galileatafa zala entzun ebanean, berak ofetan erantzupenik ez eukala ta, eskuak garbitzen dau...

XXII IRUDIA.- ERODES'EN AUREAN

Yaurlariak, biotzegabe eta ardurabako zanez, Erodes'gana biatzen dau. Onek yostalu antzez pozez artu eban, mirarien bat egingo ebalakoen ustez, belagun loyen artean andiago agertzeko nonbaitz. Erodes'ek biotza lizunkerian ebala itaun batzuk egiten dautsoz, baña Yesusek itzik ez dautso erantzuten... Yauna,

garbitasun iturizan ta neufibarik deuna, eta barbitasunaren edertasuna itoten eban loikeri ta lezunkeriarri neufibako iguiña dautso. Zenbat loikeri tazikinkeri!. Erodes'ek bere asmuak ezereztuta ikusi eba zanean, ifi eginda bere amofua estaldu gurarik, zofotzak artzen dau, eta Pilatus'egana bialdu eban, bere emakume galduen artean itzalla ez galtzeko....

XXIII IRUDIA. - BARABAS YESUS BAÑO BEIÑE-

GO. - Erodes'ek maltzurkeiak, Pilatus'enasmoak ezereztu ebazan. Pilatus uste eban, Abar-Igandez, Jesus gogoz txalotuta goraldtu eban efiak, orduan be bafadin egingo ebala. Bafabas gizon-eraillez ta gaizkilea, ta Jesus ongile ta bizitza guztia on-egiten igaro ebana, bere yagoikozko guztial izatea mirarrietan agertu ebana, efiaren afeza aurkeztu ebazan, eta efi buruariñak, eleiz gizon eta parixetarak atzipetuta. - Bafabas azkatzeko eskatu ta Jesus'ena aurka gafazi baten deadarka asi zan... "Jesus gurutzera, Jesus, gurutzera! esanaz.

XXIV IRUDIA.- Z I G O R T Z E A

Iskanbila geyagotuez yoyan eta Yaur-lari kikiġak, efi asafetua bakatu gura-rik, parixetafak zirikatuta, Yesus andik aldendu ta zigortzeko agindu eban. Efi-asafetuari arpegia emoteko adore barik, efiaren gurariei amoregin eutsen. Bene-tan burubakokeri aundia, Efubako zala - autortu, ta zigortzeko agindu!. Efiomataf legeak agintzen eban zigorkada ikaraga-fiaz zigortzen dabe gure Gaizkatzale - maitea. Lau boferuk, txandaka, amufuz eta neufi barik zigortzen dabe.....

XXV IRUDIA.-ARANTZAZKO BURESTUNA

Guda-etxeko aterpean dago Yesus. Efiomataf gudariak gofotatzen eben yudegu-bat zan Yesus, eta yaurliaren ebagia-ren egozan bitartean ifi ta exekaz da-rabile gau guztian. Arantza zofotzezko-burestun bat buru donean ipinten daut-soe, yantzi gofizka bat ipiñi, eta efi-ge-ezaugafitzat inge edo kañabera bat emo-ten dautsoe. Eta efi-zko yolas aldia as-ten da. Efi-geen efi-ge, ta betiko Yakitu-ria zana, zoro antzera yostalutzat artu..

XXVI IRUDIA.— E C C E H O M O

Jesus apaldu, lur-yota, ezereztuta, arantzazko burestuna, ta kañaberea eskuan ebala, lotuta efiaren aufferan aurkeztuaz, Pilatus'ek gura ebana zan, efi asafetuaren amufua ibitu. "Ara, amen gizona" diñotse, asafe ta gofotoa geyagotu beaferan, bafe-eragin eta ixeka egiteko asmoz. Baña, gafaziz, biotz gogokeriz deardar eginten dabe: "Gurutzan yosi egizu! Gurutzean yosi!". "Gafasi artean Pilatus'ek Kaiser'ek izena entzuten dau, saltzale areik asmo guztiagaz aitatu ebenizena, eta bere gana salatuko eben bildufez, Pilatus'ek euren eskuetan itxi eban gurutzean yosteko

XXVII IRUDIA.— GURUTZEA LEPOAN DABELA

Gurutzean ilteko epai gogofa ezafi eutsoen Jesus'eri. Gure Gaizkatzale maitiak, guganako azkenbako maitasunez biotzez besarkatuten dau. Bere gorputz garbia eyota, arpegia odolez itxusituta, ... burua arantzaz yosita, bere gogo deuna arerioen gofotoz saminduta, Jesus'ek gure pekatuak bere gañean artuta Aita —

XXVIII IRUDIA.-LURERA YAUSTENDA YESUS

— Yesus gurutzearen astuntasunaz zapalduta, bere arerioen gogorkeri, eta gofoto ase-eziña alde batetik eta boferuen asperkundegogoa ta ankerkeria bestetik ebazala, an doa efukafi Calbario^oko mendirantz. Zigofez ufatutako sorbaldark ez ziran gauza ain zama astuna erroateko, eta bere gorputz atalak urdurituta, indafak galdu ebazanean, ara non yausten dan lufera, gupekatariorok lufetik zerurantz yaoteafen.....

XXIX IRUDIA.-BERE AMA AURKITUZEN DAU

Gauza benetan gogofa izan zan, Yesus^o entzat Bere Ama maitea aurkitzea. Nok azaldu daikez Ama-Semeak eure biotzetan izan eben samintasun gafatza?. Zeru ta lufen bakalduna, laido ta gogorkeriz inguratuta aurkizzen da. Bere arpegia itxusituta, saminen-gizon, legendun bat bai lizan.....aurkitu eban bere Ama, gauza guztien Efegiñak, bere Semea Yaungoikoaren Seme gizon egiña. Zer egin geinke guk ikuzkizun onen afean ixildubaño besterik?—....Itzalez ixildu gais

ezan, geure bafuan somatzen dogun efu-
ki ta maitasuna azaltzeko ez dago it-
xik eta.....

XXX IRUDIA.- ZIRENEOA

Itun Zafean egindako iragarkiak bai
ondo bete zirala!. Obendariak, pekatari-
ak, bere lepoak karagafizko zauriz ufa-
tu eutsoezan^{era} bakar bat osorik itxi
barik, oinpetik asita buru txuntxunfer-
ño. Jesus'en arerio gaiztoak, bildur di-
ra nekeai eutsiteko ez dala gauza izan-
go, eta ez efukiz onetarako biotzik ez-
euken eta, baña bai gurutzean yosita i-
kusteko gurari gofogariz, Zireneoa emo-
ten dautse, gurutza eroaten lagunduteko.

XXXI IRUDIA.- B E R O N I K E A

Esangura andikoa da Beronikeak egin
ebana. Jesus'en Arpegi agurgafia, zapi
bategaz garbitzen dautso, eta Jesus'ek-
eskafonez, bere Arpegiaren irudia zapi-
an irafita itxiten dautso. Egite efuki-
or onek bere nekeak zerbait arindu eba-
zan. Emakume adoretzu eta efukitsua be-
netan, ez da boferu gaiztoen bildur, ez
da esamesaren bildur be, bere efuki ta

maitasunak Jesus'en Arpegi gufgafi, i—
zerdi, txuz eta autsez zikindua, zapien
irafita gelditzen da. Emakume adoretzu
onek ikasbide edefa emoten dautse eta
adorez bete, nekepean Jesus'eri gafai-
tzen dautsenari.....

XXXII IRUDIA.-YERUSALEM'GO ALABAK

Bulzaka ta gogorkeriz, afastaka -
mendirantza gure Gaizkatzalea daroen -
artean, bere nekeak dirala-ta, maitasun-
efukiz negaf dagien emakume onei bere
maitasun eta efukia agertzen dautse...
Kristo'ren egiak argi dagi Pilatus'en
aufean lez, ta bere gogotik itufi ugari
batetik lez, pozgafitasun ta parkamenak
urteten dabe."Ez egizue nigaitik nega-
fik egin, negaf egizue zeuokatik.....

XXXIII IRUDIA.- GURUTZALTZEA

Gure Beferoskundeko eskutukiak oso-
an betetera doaz. Jesus, munduaren Gaiz-
katzelea, Gurutza baten Golgota Mendian
yasoia izango da..... Samintasunezko e-
duntzia azken ondafetaraño edateko, be-
re arerioen aufean biloztua izateko -
lotsaria igaro eban iragafita egoan -

lez bere soñekoak kendu eutsoesànean. Kristo`ri guztia ùkatuten yako. Untze—gogofakaz bere esku ta oñak gurutzeari yosten dautsez, yaungoikozko odola efuz ixuri eragiñaz... Sokaz tiraka azufak — lokatuten dautsoez, bere arerioresn ifi ta ixekan artean.....

XXXIV IRUDIA.—ANDREA, ARA EMEN ZURE SEMEA. Yesus gurutzean e`fegia izan dā! Laido lotsagari ta biraorik ikařagarienen erdian, Yesus gizonen Gaizkatzaleak izakirik maitetuena, bere Amaguztiz deuna, Andra Sortzetik Garbia geure Ama ta ezkařezko laguntzaletzat emon euskun — bere Beřeroskundera: "Andrea, diñotsoara or zure Semea"... gizari guztia.. — bere ardurapean ipiñi ta eskar guztien Ama egiñaz, eta alan atsekabetu guztien poz—asetzale, eta bidekatuta dabil-tzazan ainbesteren laguntzale.

Une aretan yazoten ziran gauza afigari, ulertu eziñak ikusita, nok neurtu eta daike Yesus eta Maria`ren biotzen ateakabe samiña!.....

XXXV IRUDIA.- E G A R I N A Z !..

Jesus bere oparia gure Beferoskun—
derako oso-osoan izan zeitekean, bakar-
tasun ikagafian aurkintzen zan. Giza-
diak alde batera itxi, eta Aita berak
be bakafik itxiten dau. Bere gogo, arima
guztiz deuna gorputzeko egafi ikaragg-
fiez gañera, arimen egafi ikaragafiagoa
yasaten eban. "Egafi naz!"..... Deadar-
dagi.. Pekatu ta eriotzagaz ilten diran
gogoen egafia. Deadar lafi onek bere
maitasun neufibakoa erakusten dau, be-
re goi-maitasun neufibakoa, bere gurari-
bizia bere opari gurena Aita betikoari
eskintzeko aintzarik aundiena eta gure
pekatu guztien ordaña.....

XXXVI IRUDIA.- I L U N A K

"Guztia amaitu da!".... Auzetik ira-
gafi ta erabagita egoan guztia bete da!
Sancta Sanctorum'ko oyalestalkia ufatu
da. Lufa ikaraz dago eta ilunpean gel-
ditzen da. Gaizkatzalea zeruta lufaren-
bitartean dindilizka dagoala gurutzean
bertan dauko Beferoskunde onuren eta-
ondorengo osdasunen ikufiña.....

XXXVII IRUDIA.-YESUS'EN ERIOTZA


Bere guraririk biziena betetako unea eldu da. Gure Jesus'ek, bere bizitza edefaren azkenengo arnasan, afigarizko-indañaz bere Aitaren eskuetan yafitenda oyu andiz esaten ebala: "Aita, zure eskuetan neure Gogoia ipintendot"..... Eta burua makurtu ta azken arnasa emon eban gure Jesus maiteak.....

XXXVIII.-IRUDIA.-BULAREKO ZAURIA

Jesus'en opariak aufera yafatzen dau, eta eriotza ostean bere ond^{be}asunak-emon gura dauskuz. Arerioak sumindutadagoz, eriotza onek garaitu egin dabezala oartzen dabe, eta bere azufak apurtu bear izanik ez eukien ezkerro, -gudari batek, igarlearen esena beteaz, amufu biziz lantzaz bere bulafa zaurituten dautso bere biotz gurgafia zulatzerano, bertan egoan odol eta ura garbitzeko ixuriaz.

XXXIX IRUDIA.- GURUTZETIK YASTEN

Jesus'en gorputz ila zauriz beterik-Amak altsoan artu ebanean euki eban biotzeko samintasun ta atsekabe—




gafatza guk aitu ezin geinkena da.
Eguzkizun onen afean ertiak zer egin-
ez daki, yakituria ixiltzen da, eta be-
gi ta biotzak bakarik itz egin leikie.

XXXX IRUDIA.- O B I R A T Z E A

Amaikatxo neke igaro ebazan Yesus'-
ek gugaitik!. Eta neke atsekabeok bere
Ama Maria Neskarbi edo Birgiñagan ba-
fiztau ziralako, Ziñopa edo martiren -
Efegi deitzen dautsogu. Gure Amaren
negrakaz ez gaitezaz aztu, ez da ^{bere} ~~baiz~~
bakartasun eta atsekabeakaz be, eta geu-
re Eleiz Amagaz batean, biotzeko sa-
mintasunik andienaz eskatu dagiogun:
Ama samur on biguna-zure nekeren aztu-
na! -Nire negaf eragin!- Kristo'n -
nekauste, eriotz-Zeureak artzeko, biotz-
aul au bizkofa egin".....

A Z K E N A



— 0 1 2 3 4 —

A. M. D. G.

